

BALIO PROPOSAMENA



Gure enpresan, jardueren diseinua oso arduratsu eta zehatz egiten dugu, adineko bakoitzaren gaitasun fisiko, kognitibo eta emozionaletara egokituz. Adibidez, estimulu kognitiboak lantzeko, memoria eta arreta hobetzen laguntzen duten joko kognitiboak eskaintzen ditugu, hala nola hitz-kateak eta iraganeko esperientziak partekatzeko saioak. Era berean, jarduera fisikoak modu seguruan egiteko ariketak antolatzen ditugu, esaterako, oreka eta koordinazioa lantzen dituzten ariketak, mugikortasuna sustatuz. Jarduera horien bidez, aiton-amonek modu aktiboan parte hartu eta hobekuntza fisiko eta mentala lortzen dute.

Banakako arreta gure zerbitzuaren oinarria da. Adineko bakoitzaren premia individualak aztertzen ditugu eta horietan oinarritutako jarduerak eskaintzen ditugu. Adibidez, mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako ariketa arinagoak prestatzen ditugu, eta dementziaren hasierako fasean daudenentzako memoria estimulatzen duten dinamika bereziak sortzen ditugu. Helburua beti da adineko bakoitzak bere erritmoan parte hartzea eta onurak jasotzea.

Bezeroa prest egongo da guri ordaintzeko, kalitate handiko zerbitzuak eskaintzen ditugulako, adinekoen bizi-kalitatea hobetzeaz gain, langileen eta familien karga arintzen duelako. Laguntza eta estimulazio ingurune bat sortzeko dugun gaitasunari esker, aiton-amonak baloratuta eta zainduta sentituko dira.

Bereizten gaituen ezaugarria batez ere kualitatiboa da, gure balio-proposamena ez delako soilik prezioan oinarritzen, eskaintzen ditugun zerbitzuen kalitatean baizik. Gainera, gure taldearen esperientzia eta kualifikazioa ezaugarri nagusienetariko bat da. Adinekoekin lan egiten duten langile guztiak esperientzia duten profesionalak dira, eta horrek aukera ematen digu jarduera eraginkorrak sortzeko eta kudeatzeko. Gainera, prestakuntza jasotzen dute etengabe, metodologia berriak aplikatzerakoan eta adinekoen beharrian berrietara egokitzerakoan. Taldeak, esperientzia handia izateaz gain, jarrera enpatikoa eta gertukoa eskaintzen du, aiton-amonek konfiantza giroan parte hartzeko aukera izan dezaten. Ezaugarri hauek, askotan, ez dira behar bezala nabarmentzen beste zerbitzu batzuetan.



Azkenik, gure proposamena etengabeko sozializazio-ingurune bat sortzean datza, horrek hobetzen du adinekoen bizi-kalitatea, eta familiek asko baloratzen dute hori. Alderdi kualitatibo horien konbinazioak, hala nola jardueren diseinua, banakako arreta eta taldearen esperientzia, gure zerbitzua bakarra izatea suposatzen du, eta, horregatik, bezeroak prest egongo dira guri ordaintzeko.